

## Euskal poesiaren kritika, 2003.

Jon KORTAZAR

### Izaeraz

Hona hemen poema liburu berezi bat: aspaldikoa, zaharkitua, erabat, eta azken finean, gustu kontura ekarri beharko genukeena: zer ote da gustua? Historiak eratu digun gauzak esateko manera...

*Munstro abertzalea* argitaratu du Ignazio Aiestaranek. Eta liburua irakurri ondoren, gauza asko datozkit burrunban burura.

Lehena, aspaldiko poesiaren usaina dago hemen, agian aspaldiko garaiak ere bizi ditugulako eta Vietnam eta Irakeko gerren artean paralelismoa bizi dugulako, poesian eta literaturan ere joerak garai haietara itzuli zaizkigu.

Poema libururik –constructum-ik– ez dago jada. Poemak pilatu egiten dira ideia nagusi baten aldean. Ideia kontraesankorra, noski: abertzalea munstroa da, baina munstrotasunaz pozik al dago? Abertzalea izatea ez zegoen modan literaturan, baina zer ote da moda?

Ironia, dekonstrukzio, hitz eta ideien jokoetan oinarrituriko poesia da hemen eskaintzen zaiguna... Ideietarako joera nabaria. Ah, eta, hirurogeita hamarrak presente direla adierazteko, Joxe Azurmendiren epilogoak. Nahiko lan poesia irakurtzea, epilogoak ere irakurtzeko...

Identitatearen –eta gainera, identitate berria ez den– adierazpena da liburua hau, berriro forma zaharren agerpena, eta esan beharrraren esanez, esan egiten duena. Bai badakigu, irri zoro bat egin dezakegu herri honetaz, “gora gu eta gitarrak??” esan, baina, irria-

ren ondoren ez dago besteren aztarnarik, badakigu menperatua denak bere burura agertu behar duela; irria baino lehen... Ideologia, nola ez?

Eta identitatea zalantzan jartzen bazen postmodernitatean, utikan postmodernitatea, identitatea da nagusi, hemengoak gara, eta, zalantzaren aurrean, egia agertu behar da. Gu inozoak ginen, uste genuen Egia bera zalantza bat zela, baina ez, botereak agintzen duenean mutu geratzea besterik ez da geratzen, Egia definiturik geratzen baita, edo bestela txantxa, ber-lekuratzea, hemengoak gara esatea... ez gara abertzaleak baina ilargia hemendik ikusten dugu, eta artean ikerketa estetiko alferrik da. Hemengoak gara, bai, ez dago urrun joaterik... hemengo ilargia ikusteko.

Poesiaren tokia hitz jokoak eta irtenaldiak hartu duenean, irakurri behar ote dugu liburu hau? Hobe irakurtzea, beste ezeren gainetik...

### Hutsa ezer ez denean

"Heriotza ez da ezer, eta ez dena ezin daiteke hil" idatzi zuen Mirandek. Eta Pello Otxotekok poema liburu hunkigarria argitaratu du ezerezaren inguruan, eta ezerezaren mamia dastatu nahiaz. Eta honela idatzi du paristarraren idazkera aldatuz eta baloratuz era berean: "Eta Herio gainditzeko ahalegin bakarra/ heriotza bera dugu".

Pello Otxoteko (Irun 1970) azken urteetan agertu den poetarik interesgarrienetakoa dugu (eta hau lausenguak urri egiten dituen irakurle batengandik dator), ahots heldu bat, poesia eta filosofia uztartzen saiatzen dena, eta, berez, poesia sinbolistaren bideetan ikus dezakeguna.

Bere aurretiko liburu bietan (*Haraindiko begiradaren bila*, Birmingham, eta *Itzalaren ñabarduretan*, Hiria, 2001) sotiltasunak toki ederra hartzen zuen, kontzeptuetan barrena abiatzeak bere mundua hartuko balu bezala.

Orduan hauxe idatzi nuen bigarren liburu hari buruz: "Hausnarketa liburu bat dugu hau. Itzalaren inguruan mugitzen duena bere pentsakizuna, filosofiatik hurbil, agian, hurbilegi gaur egun maite den estetika lauso eta arinarentzat". Eta orain beste horrenbeste esan dezakegu: "Hausnarketa liburua dugu, heriotzaren eta ezerezaren artean", baina errebolta puntu batekin, zeren Lasak esan baitzuen



NADA eta DANA zirkulu dira, Otxotekok NADA eta ADAN kontrajarzen ditu izakiaren indarrak ezereza horren aurrean jarriz eta heriotza den misterioaren aurrean gure ezerezarekin batera adorea agertuz.

Orain ere kontzeptuak eta filosofiak nagusitzen badira ere, heriotzaren inguruko poemategia sortu baitu egileak, arnasa galdua da horren sinbolo nagusia, ironiak toki handiagoa hartu duela esan dezakegu, batez ere liburuaren lehen aldean (“Galderak” eta “Erantzuna”, eta “Erantzuna (II)”, “Putzu mundutarrean galdezka”), eta filosofia olgetari agertu du, agian topikoekin lan egin delako, eta topikoak hankaz gora botatzea (Derridaren itzala han urrunean ikusten da) erraza zaigu.

Hizkera filosofikoaren puntuak aukeratu dira liburuan, beti ere askatasunez erabiliz, eta itzala agertu nahian, mundu itxia da Otxotekorena, ideien inguruan eratzen dena, eta pentsakizun abstraktu baten bidez emana. Sotil agertzen dira irudiak eta sentipen momentuak. Baina erregistro nahasketa maite du (batez ere kantarien aipamenak ugariak dira liburuan), eta horixe da gutxien atsegin izan dudana testuan.

Otxotekok hutsaren barnean bidea proposatu du, heriotzaren inguruko Joan-etorri setatia, galderez eta erantzunez osatua, paradoxan kulunkan, poema liburu aberatsa sortu arte.

## Esanaren mugetan

Tere Irastortzaren (Zaldibia, 1961) liburu berria dugu begien aurrean. *Glosak. Esana zetorrenaz* deitu du idazleak eta orain urte batzuk hasitako bidean jarraitu duela esan dezakegu, bere hitzarekin duen borrokan jarraituz, lana erdietsiz, errealtatearen eta hitzaren artean den ibaila gaingitu nahiz.

Irastortzaren lan poetikoa –Japoniako haiku poetikoekin lanean hasi zenetik behintzat– hitzaren zentzuaren mugetan ibili da, hitza nahiko ez balitz bezala, beste idazle batzuk –Saizarbitoria, Uribe, Meabe– adierazi duten moduan, mesfidantza nagusia egongo balitz bezala hitzaren ahalmenean eta honek errealtatea adierazteko duen balioan.



ibilbide luzeko poeta dugu Irastortza eta urteetan zehar bere bideari jarraitu diona. Poesiaren ulermen berezia izan du beti. Eta hitzaren erradikalatasuna bilatuz joan da bere lana.

Orain ere "Glosak" idazten ditu, beti ere hitzaren eta errealitatearen mugetan, esanaren eta egiaresan arteko borrokan tenka eginaz, adierazi dezakegunaren eta adierazi ezina den horren artean zabuka, azken batean identitatea mugatu nahiz, eta hizkuntzaren eta norberean arteko galdera nagusi bat zabalduz.

Baditu liburuak, hala ere, lehendik egindako liburuak irakurri ondoren nabaritzen diren pausu berriak. Adibidez, lehen alde hain zientifiko hori, "poesia zientifikoa" deitu izan den horretara hurbilduz, eta teoria zientifikoak hitz poetiko bihurtzeko gogo handiz eginak. Badu liburuak, berritasunaren neurri berean, egitura irmoa, glosak hitzaren errealtate anitzari zabaltzen zaizkiolarik: idatzitakoari ("Idatzian zetorrenaz"), inspirazioari ("Oharkabeen zetorrenaz"), edo esan berriari ("Esateko zegoenaz") egindako glosak dira gaur aurkezturikoak. Eta balorazio bat egin beharrean nagoenez, niri hirugarren alde honek eragin dit irakurketa nahia eta betearen iruditu, nahiz eta aitortu behar dudana, agian, alderik ezagunena, landuena dela idazlearen lanean. Baina, neurri beran Tere Irastortzaren poetikotasunaren indarrik berezienak agertzen dira alde honetan: isiltasuna, beste norbaitek hinkin hizketaldia, bakartasuna, identitatearen mugak, hitzaren mugak, "ni" hori nor ote den galdetzeko gogo ezinegona.

Hitzaren mailaketa horretan, testuak agertzen du errealtatera hurbiltzeko mailaketa: testua, testuari jarritako oharra, oharrari egindako glosa: hizkera poetikoak ezin du guztia esan eta horregatik beharrezkoak dira beste era bateko formak, poetiko bihurtuko dituen idazleak, "glosa" hitzaren zentzu osoan: ohar, bariante, ulertzeko zaila den mundu bat ulertzeko ahalegina, azken batean, Irastortzaren lanean gakoa: ulertu eta ulertu, tinta mingarriz idatziz.

### Eguraldia ez da mintzagaia

Poesiaren bideak ugariak dira. Eta azkenaldi honetan sinbolismotik urruntzeko asmotan nagusitzen ari da mintzaira arruntaren ildoak. *Eguraldiaz hizketan* deitu du Mikel Peruarena Ansa (Donostia, 1978) bere lehen poema liburua. Mintzaira arruntaren ibilbidean na-



gusitu du, adibidez, Roger Wolfe poetak bere lanaren oinarria. Edo gure artean Karmelo Iribarrenek.

Eguraldiaz mintzatzeko joera aitzakia da liburuan, hau da, zer esanik ez dagoenean gai orokor eta arinaz, konprometitzen ez duenez, hitz egitea, baina liburua azalak gogoratzen duenez, euria aitzo bihurtzen da, eta eguraldiaren mintzagaiaren ostean, edo sakon-ean, bizitzaren krudelkeria nagusitzen da, maitasuna delarik estalpe bakar.

Mikel Peruarenaren poesian bada egunerokotasuna, bada poesia garbia eta zuzena egiteko gogoia, bada poeta berriengan nagusitzen den Joseba Sarrionandiaren oihartzun puntua. Baina nekez hitz egiten da eguraldiari buruz, gai arinari buruz. Eta neurri baten liburua izenburuak agindutako tonutik urruntzen doa.

Joera antierretorikoa nagusitzen delarik hasieratik ("Hauek ez dira olerkiak/ hemen ez duzu/ sormen lanik aurkituko [...] / baina, maitia, hemen ez duzu/ nahiko zenukeen hitz jokorik topatuko, / ez duzu poema goxorik aurkituko", 9), ahozkotasunetik hurbil dagoen espresamoldea esploratzen du testuak, eta errepikapenetan eta paralelismoetan nagusitzen da hari. Bere poetika azaltzen duen sarre-  
ra baten ondoren, bost atal nagusik osatzen dute liburua. Lehena ("Hondartzako bataila ttipiak") maitasunaren gaiaren inguruan aton-  
dua dago, zuka zuzentzen zaiolarik maiteari eta joera narratiboa nagusituz eratzen delarik poesia, kasik sentimendu baten inguruan. Bigarren atalak eman dio izenburua liburuari eta egunerokotasuna-  
ren aitzakiaz esperantza berria zabaltzeko aroa adierazten du poetak. Hirugarren atalak ("Odola hondartzan") poesiarik zuzenena adieraz-  
ten du, eta hitz joko eta literatura oihartzunen atzetik munduari buruzko ikuspegia eman du poetak, eta hondartzan izandako maita-  
sun ttipiak desagertu egin dira ("Harean odola isuri da/ hondartzako gure bataila ttipiak/ betirako deseginez", 73). Agian, memoria eta ahanzturari buruzko pasarteak dira indartsuenak liburuan; Sarrionan-  
diaren iturri den Ritsos gogoratzen du eta Latinoameriketako poetak ere irakurtzen dira hor. "Estazioan zain dauden gure bihotzak" atalean poesia hurbila idazten du berriro, gizaki pribatuaren bidetik. Azken atalak, "Izango da", itxaropena eta utopiaren alde egiten du.



## Egun arrunten geografia

Lerro oso argiko poemategia argitaratu du Pako Aristik bere *Libreta horiko poemak* liburuan, eta izenburuari kasu egiten badlogu poema soltez osaturiko liburu bat dugula esan dezakegu: libretakoak gainera, zirriborro edo pentsakizunak biltzeko erabiltzeko den horietakoa eman duela argitara esan dezakegu.

Libreta horiko historia azken poeman kontatzen da: "Concceta Probanzak oparitu zidan/ libreta hori hau,/ behin kalean topo egin da."

Lerro argiko poemategia, unek eta segunduak kontatzekoa dena... guztia arin, guztia tonu narratibo batez, dena zuzen eta ahozko espresiotik hurbil. Inoiz esan dugun bezala, badago poesia eta kon-tagintza lotzeko tendentzia gaur egun, hizkuntza antirretorikoa erabiliz, egun arrunten geografia marraztu nahiz.

Bide horretan kokatzen da Pako Aristiren liburu hau ere, elaborazio artistikorik ez duela ematen duena, baina ez da horrelakorik gertatzen.

Esango nuke, liburuan poema larregitxo daudela iruditu bazait ere, biografia asmatu bat erabili izan dela hor, edo, nahi bada, poetaren irudiaren sorketa eta eraiketa lana egin dela: bohemiaren itxura duena. Baina agian, kontuan hartu beharko genuke bohemia hitzak zentzu desberdinak dituela jaio zen aroan eta gaur egun ("Bohemioa eta burgesa"). Dena dela, itxura hori sortu nahi izan du poetak: "Bohemioa nire baitan bizi da,/ urruneko neskak maite dituen hori".

Ahots horrekin batera, tonu narratiboaz gain, badago galdutakoaren aroari buruzko nostalgiaz osaturiko hainbat sentipen testuan barrena. Kaleko filosofo batek hitz egingo balu bezala, izkinaren ertzetik. Joandako denboraren nostalgia nagusitzen da, eta, *hélas*, haragia tristea da, esan dezake poetak, moralista zaharrekin batera: "Bular gogoangarriak iruditakoak/ ez zaizkit orain batere gogoragarri".

Niaren inguruko testuak nagusiak badira ere (eta desio sexualak ezkutaturik gabe ematen direlarik ia idazkera automatikoan), satira kutsuarekin jarraituz, ez dira falta kritika sozialera apuntatzen duten poemak. Irakurtzerakoan, noizbait, Aresti etorri zait burura, eta baita



ere Erdi Aroko zenbait poeta (nahiz, beharbada, berriro beat belau-naldikoak izan gustukoenak egileak). Baina Arestik Aristik baino laburrago idazten zuela iruditzen zait. Hain zuzen ere, liburu honen egileak pilaketarako tendentzia agertu duelako, eta horregatik ulertzen da lehen poeman botatako abisua: mantso irakurri liburu hau, beste-pilaketak arriskuan jarriko du irakurketa.

## Omenaldiak

*Harri txintxolak* izenarekin Jean Luis Davantek poema liburu berria jarri du irakurleen eskuetan. Liburu klasikoa deitu dute argitalexekoek, baina ez nago ni hain ziur.

Harri txintxolak dira bidea ez galtzeko ipuin hartako umeek jaurtitzen zituztenak. Ipuin horretako haurrek bezala egin du Davantek: poemak idatzi, oroimenaren bidea ez galtzeko, eta, hildako lagunei bereziki, omenaldiak eskaintzeko.

Liburu tradizional baten aurrean (eta ez klasiko baten aurrean) gaudela esango nuke, eta bere joera tradizionala ezin bada ukatu (metrikaren erabilpenean, gai erabilien aukeran), uste dut liburuaren balioa, izatekotan, beste nonbait aurkitu behar genukeela.

Batetik, sistemaren barnean, bestetik kapital sinbolikoaren ildotik. Gaur egun euskal poesiaren egoera zein den adierazi behar dugunean, beti aipatzen da belaunaldi desberdineko poetak ditugula lanean, baina baieztapena ez litzateke egia honelako liburuak agertuko ez balira. Eta, eskertu behar da, nahiz eta ondoren irakurtzeko orduan gogo handi gabe aritu lanean, honelako liburuaren argitalpena, molde desberdinak behar baititu sistema literarioak. Poema asko neurri desberdineko sonetoak ditugu, eta ospatu beharko da normalizazio bide gisa, hori horrela delako debaterik ez sortzea, orain urte batzuk ez baitzen bera gertatu Alfontso Irigoien zenak sonetoz osaturiko liburu bat argitaratu zuenean. Bestelakoa izan zen harrera orduan... Mitxelenak ere parte hartu baitzuen giro ozpin hartan.

Kapital sinbolikoaren aldetik ezin da ukatu Literatura deitzen dugun instituzioak beharrezko dituela Zuberoako idazleak, euskararen alde guztiak erakutsi behar baititu. Eta hizkuntzaren balioa da idazleak gehien aipatu duena bere liburuaren aurkezterakoan. Hizkuntzaren



zati garrantzitsu baten moldea dugu hemen, eta gainera, dakien jakintasunarekin aritu izan da Davant molde poetikoa osatzen...

"Eta testuari buruz zer?" galdetzen duenari, bada, poetika ikusia dela erantzun behar, galek ere ez dutela berritasunik ekartzen, eta neurri horretan, ezagunak dira lanean aipaturikoak, kutsu erromantikoa nabaria delarik: "Urtaroz urtaro" (Lizardik idatzi zituen poemena antzera?), "Sorterria", "Herriminez"...

Agian "Bizi minez" deituriko zatian aurkituko du irakurleak gustuko duen zerbait, azken aldia, lagun hildakoen omenez idatzia alegoria hutsean konpontzen baita. Baina ez da falta testuan ironiarik ez eta ere hizkuntzaren erabilpen bipilik...

### Bizitza sentsazioa

Zazpigarren poema liburua argitaratu du Juan Ramon Madariaga poeta bizkaitarrak (zortzigarrena, gazteleraz atera zuena kontatzen badugu), eta beraz traiektoria luzea egin duela esan dezakegu 1989. urtean bere lehen liburua argitaratu zuen egunetik hona. *Izozmendiak* izena darama, eta izenak –eta agian izenak bakarrik– gogora ekartzen du Benjamín Prado poeta lagunaren *Iceberg* liburua, eta poeta hau hainbatetan izan du hizpide Madariagak. Baina, nire iritziz, poema molde desberdina darabilte biek.

Poesian hasi zenean, Heriotza, Amodioa eta Bizitza zituela gai nagusiak, poesia handiaren gai nagusiak, esan zuen idazleak. Oraingo honetan Bizitza tratatzeko tenorea heldu dela dirudi, edo hobe, bizitzan amets eta errealitatearen artean dagoen mundua, urtuz doan mundua azaltzeko unea, izozmendiak itsasora sartzen dira eta urtuz doaz, ametsak eta utopiak bezala, eta norabide gabe doaz itsaso handitan, gure bizitza ere norabide gabe doan gisa.

Gai nagusiak maite baditu ere, Madariagaren poesiak badu txikitasunaren erabilpen berezi bat, begiradaren unean jarria. Hemen ere bai, "sentsazio bat da nire pentsamendua", eta pentsamenduetan baino gehiago ikusten ditu sentsazioak, inguru oso hurbil baten aurkitzen direnak: ezkaratzeko tomateetan, egunerokotasunaren paisaian, beti ere ustelkeriaren barnean "muin gozoa" aurkitu nahiz.

Tonu txiki hori sortzeko orduan izaten ditu arrakastarik handienak Juan Ramon Madariagak, baina poema liburu honetan askotxo



jokatu du pilaketarekin, eta egituraketa horrek pisua eman die testuei, eraikian irudimenaren jokoak luzatzen ikusten dugun artean...

Hizkera aldetik eta poesiaren tratamenduaren aldetik ere, aldatuak agertzen dira testu honetan: alde batera utzi dira iparraldeko hizkeraren xarma eta gutxitu (ez dira guztiz desagertu) paisaia urrunen lilura. Egunerokotasuna eta hurbiltasuna atera dira irabazten, hizkera sinple bezain garden baten mesedetan.

Hala ere, poemak beti klabe bi ditu, bata aipatua da, zuzen deskribatua, baina bukaera aldean, harridura puntu batek lausotzen du poetaren begirada, isilune batek zabaltzen poemak azaltzen ez duena, eta bizitzaren misterioa litzatekeena... mundu isil baten adierazpen isila. Madariagaren poesiak xarma mantentzen badu, plano biren arteko jokoan mugitzen delako da. Egunerokotasuna beste zerbaiten adierazgarri den neurrian, alegia.

## Poesia xumea

Poema liburu honen azken aldera Gerardo Markuletak bere poetikaren berri ematen du, idazkeraz eta irakurketaz iritzil mamitsua argitaratuz. Bada hausnarketarik poesiari buruz, hitzei buruz ("Putak hutsak dira"), gezurrari buruz, fikzioari buruz, eta baita ere, bere poesiaren laburtasunari buruz: "Luze idatz diezadazun/ idazten didazu, Luzio,/ arnasaren laburra joz/ nire oharron bizio". Eta alde formalari begiratzen badiogu Markuletaren *Batak ez du beste kentzen* laburtasunaren legea baino gehiago jarraitzen du xumetasunarena.

Marra sotila da poetak maite duena, ez pintura gogorrik, ez brotxa lodiak egingo luken marra zabalik. Ez, bide sotila, hitzak ongi neurtuak, poxpoloaren bizi iraupenak eman dezakeen argi eskasa, bat-batekoa...

Catulo poeta epigramatikoa gogora ekartzen badut, ez du izenak hutsik egingo, nahiz eta ironiaren erabilpenak esperientzia poesiaren maisu izan den Angel González gogora ekarri.

Liburua gomendagarria egin zait hau, bere sotiltasunean. Eta badira adierazi gabe utzi nahi ez nituzkeen aipamen nagusi bi testuan. Bata formala da. Bestea poetaren irudiaren sormenean datza. Forma aldetik, nahiz eta molde askea erabili, hitzen silaben kopurua ongi neurtua eman du Markuletak, agian Mirandek nahi zuen bidetik:



erritmoa sortu eta aliterazioan oinarritu poesiaren hoskidetza. Horregatik ez da arraro egiten poesiaren argitasunean aire triste batek jotzea irudi klasikoaren (epigramatikoaren) azpian.

Eta tristeziarekin jarraituz, Markuletak proposatzen duen autobiografia fikzionalaren irudia interesatzen zait. Esan nahi dut, poesia honetan badagoela poetaren irudi triste bat, dena zigarroaren keak sortzen duen lainoaren beste aldetik ikusiko bagenu bezala, antiheroiaren pertsonaia agertu arte molde guztietan, galdutakoaren nostalgian, bizi ezin izandakoaren mugimenduan.

*Batak ez du bestea kentzen* liburuak plurala ematen du: tonu desberdinez osaturiko poemak agertzen dira, eta bere txikitasunean mundu handi bat sortzen dute hitzok... hitzaren eta galeraren artean dagoen poetaren irudi erreferentziala. Esanaren eta esatekorik izanaren artean mugitzen da poeta, baina badaki, azkenez, bere hitzak baduela oihartzunik, presazko oharretan bada ere, maitasunari buruzko iritzietan bada ere, pertsonaia bat eta tonu poetiko bat osatzeko orduan eta asmoan. Neguan bizi da poeta, baina lehen aipuren iratxoaren antzera, ari da hitzen bitartez mundu txiki bat osatzen.

Poesia laburra, bai. Baina xumea eta sotila ere bai.

## Berrogei eta hamar urte bertsotan

Txomin Peillen euskaltzain, nobelagile eta narratzaile ezagunaren bertso-poema liburu bat atera du argitara Maiatz argitaletxeak, *Mende joanaz* izenburupean.

Berrogei eta hamar urteren bertsogintza biltzen omen da bertan, eta ongi da poeta lana zuzenean landu arren ezagutzera eman ez duenaren lana argitara ematea... Baina joera horren alde bietan dago liburuaren aldea eta auzia: lana egon badago, guztia (edo asko) behintzat biltzen da hemen ezagutzen ez genuena ezagutaraziz, baina garaia ere kontuan hartu behar dugu, garaiz kanpo, egitura zuzenik gabe ezagutzen dugu poemategia.

Omenaldi pertsonalaren usaina ezin du liburuak gainetik kendu: "Oraintxe, biziaren azken urteak hurbiltzen zaizkidalarik, berrogei eta hamar (sic) urteez" egindako lana dela aitortzen digu idazleak hitzazurrean. Hor ditugu, neurri berean, bildumaren galak ongi marraztuak:



izadiari omenaldia, gaztelera Espainiari egindako olerkiak, itxaropenezko bi olerki, guda zantzuak –eta poema epikoak-, maite kantuak, idazle lagunenei zirkunstantziatzko poemak...

Gaien tratamendutik laster ikus dezakegu egindako bidea bide oso tradiziozkoa dela... Generoarekin beste horrenbeste gertatzen da, noizbait bertso deitzen dira hemengo poemak, beste batzuetan olerki, eta inoiz kanta... Denetarik beraz, sentimendu nagusi bati erantzunez egindakoak. Eta argitalpenaren arrazoiak pertsonalak izateaz gain, badira beste neurrikoak ere: hizkuntza minorizatueta egiten den aspaldiko moldeen agerpena dago hemen. Orian gutxi Davant-ek ere argitaratu du liburu bat, eta moldeak antzekoak dira bietan. Eta agian, bietan estimatzeko arrazoiak ere bai: hizkuntzaren nagusitasuna, sentipenen agerpena.

Egia esateko, honelako bilduma handian oso tonu desberdinak aurkituko ditu irakurleak. Ez da falta literatura nazionalaren hutsunea (hau da, nazionalismoa goraiatzeko duena), baina kuriozkoak dira ekialdean girotutakoak, hain zuzen ere, ekialdeko joera marrazten dutenak, Krutwig-en aspaldiko haiek bezala...

## Egunero bezala

Urretxu eta Zumarragako Udalek eratzten duten Iparragirre Sariak idazle berrien mintegi bihurtu dira. Urtero-urtero saria eratu eta irabazleen lanak Bermingham editorialak ateratzen ditu: ez dira asko zabaltzen, baina, pixkanaka-pixkanaka sail ederra sortzen ari dira.

2003. urteko saria Asier Abiok (Mungia, 1975) irabazi du eta bere poema liburua *Gutun bat idatzi dizut* deitzen da. Dirudenez bere lehen liburua dugu, eta arteekin duen loturaz biografia laburrak dioen bakarra musika talde batean ari dela da.

Liburu gisa poema laburrez idatzita dago, eta gizaki baten egunerokotasunean oinarritzen bada ere, nihilismo mikatz batek indarra ematen die bertsoei.

Poetak gutun bat idazten du bere eguneroko keinu sinpleenak bilduz: jaiki, komunera joan, gosaldu, telefonoz deitu, maitea edo den horri hitza zuzendu... Eta asperdura nagusi batek jotzen du dena.



Ezin da esan poesia ezaguna denik Abiok argitaratzen duen hau. Badu ezusterako biderik, nahiz eta batzuetan ideiak oso zehatz azaldu diren... Kantaren sinpletasuna agertzen du eta komunikaziorako ahalmenak ez dio ihes egiten, baina oraindik heldu gabe dagoen adierazmolde poetiko bat dugu hemen.

Poetaren ahotsak agertzen duen asperdurak amildegri baterantz bidaltzen du espresioa: eta geroago eta meheagoa da poetaren esana. Egunerokoak jarraitzen duen ukitu nihilista dela medio, eze-rezean bukatzen du.

Liburuan, agian, momentu bi nabaritzen dira. Lehena, nitasunaren inguruan eratzen dena, eta bigarrena, maiteari zuzentzen zaiona, baina bere ibilbidean geroago eta garratzagoa da espresioa...

Ez da falta poemategian, nahiz eta nekaduraren ideiak liburuaren monotematiko bihurtzeko arriskuan jarri duen, esaldi borobilik: "nekatuta nago,/ nekatuta egotearekin nekatuta", ez eta ere formulazio ederrik: "Galduta? /Ez,/ ez bait naiz inoliz aurkitu, / ez dakit non egon naizen/ azkenengo urte hauetan, / aurkituta ez dudana ezin galdu".

Baina espresio molde hori landu gabea ematen du zenbait kasutan, espresioaren tonuak hurbiltasuna badakar ere. Liburu txiki honen egilearen trailektoriaren zain geratu behar, bada...

## Bibliografia

- Asier Abio: *Gutun bat idatzi dizut*. Bermingham, Donostia, 2003.
- Ignazio Aiestaran: *Munstro abertzalea*. Elkar. Donostia, 2003.
- Pako Aristi: *Libreta horiko poemak*. Susa. Zarautz, 2003.
- Jean-Louis Davant: *Harri txintxolak*. Elkar. Donostia, 2003.
- Tere Irastortza: *Glosak. Esana zetorrenaz*. Pamiela. Iruñea. 2003.
- Juan Ramon Madariaga: *Izozmendiak*. Susa, Donostia.
- Gerardo Markuleta: *Batak ez du bestea kentzen*. Alberdania. Donostia, 2003.
- Pello Otxoteko: *Arnasa galduaren ondarea*. Elkar, Donostia, 2003.
- Txomin Peillen: *Mende Joanaz*. Maiatz, Baiona, 2003.
- Mikel Peruarena Ansa: *Eguraldiaz hizketan*. Elkar, Donostia, 2003.